



DANI BLANCO

Kattalin Miner

TABERNA ZULOKO BLOGARIA ♦

# Tiro eta danba, has dadila urtea!

BA OMEN da italiar esaera zahar bat, non gizon bat ageri den egunero-egunero, santu bati errezatzen: “Mesedez, mesedez, loteria irabazi nahi dut!”. Esakerak dio, santuak, nazka-nazka eginda, behera begira jarri eta hurrengo erantzuten diola: “Mesedez, mesedez, eros ezazu txartel bat behin-go!”.

Esango nuke, urte berriekin ere antzeko zerbait gertatzen dela. Diot, urte berri bakoitzari, berez urteak horretarako ahalmen naturala balu bezala, denok eskatzen diogula zerbait. Zerbait ona, noski. Egia dena da, ordea, ondoren, guk geuk egin ezean, ezer gutxi gertatzen dela mirakuluz.

Gure etxean, ohitura beste bat da. Gauerdia eta gero, ehizerako eskopetak hartu eta tiro egiten dugu zerura. Ez iezadazue galdetu ohitura nondik datorren, baina azken urteetan, nik neuk ere, erritual horri bere balioa eman diot pixkanaka. Kontua da, urteak emandako kontu txarrei egiten diedala tiro, eta askotan (sinbolikoki, noski), urtea izorratu diguten hainbat kabroiri ere egiten diodala tiro. Nik ere beraz, urte zaharrari txarra uxatzeko eskatzen diot, eta berriari, berez, zerbait ona eskatu.

Aurten, pentsatzen jarri naiz nori egingo diodan tiro. Kabroi asko izan dugu aurten ere, krisi handiak

jota, banketxe, politikari eta matxista askok izorratu nahi izan dute urtea. Ez naiz hemen izenak esaten jarriko, batez ere, tiroka hasten naizen momentuko berotasunaren bat-batekotasunaren xarma ez izorratzearren.

*Aurten, pentsatzen jarri naiz nori egingo diodan tiro. Kabroi asko izan dugu aurten ere, krisi handiak jota, banketxe, politikari eta matxista askok izorratu nahi izan dute urtea*

Hala ere, gure etxeko ohitura horren terapeutikotasunaren inbidiaz, batek baino gehiagok egin dizkit enkarguak aurten, eta halaxe izango da. Eta hau irakurtzen duzueenerako tiroak jota izango baditut ere, behingoagatik, pentsatu dut, egingo ditudan eta ditugun gauzengatik joko ditudala tiroak airera aurten.

Eskatu didazue, 2013 feminista bat, antikapitalista bat, euskaldunago bat. Eskatu didazue, maitasun apur bat, osasuna, dirua eta lana, eta orgasmo bat edo beste gehiago. Eskatu didazue egiteko tiro gogor

zuengatik, eta gugatik, eta horrelaxe egingo dut.

Baina arrazoi bakarra dut hori dena lasai aldarrikatu eta eskatzeko; izan ere, santuari errezuan zebilen italiar gizajo hark ez bezala, badakit, egunero, gogotsu arituko gara gure desira guzti horiek 2013an bete daitezen. Ez gara etxean geratuko. Aurten beraz, ez da zuengatik tirorik itsuan joango. ■



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

## Irudia egin

IRUDIA egin, itxura egin, damu irudia egin. Irudialdatu, antzaldatu. Artista ezagun batek irudiz osatutako egutegi bat prestatu du, keinu ikonoklasta batean bere eskuekin irudiak zulatuz eta itxuraldatuz. Zulatutako irudiz beterikoa egunkaria da. Honakoa dio urtarrileko orrialde zulatuak: “Irudi oro hitzen munduan sortzen da. Ez dago hitzetik bananduta dagoen irudirik, ez dago hitz egiten ez duen hitzik. Hizkuntza irudiak ekoizten jaiotzen da”. Hitzak Georges Didi-Hubermanek dira. Mediatizazioa eta espektakularizazioa dira irudiak desagerrarazteko tresnarik boteretsue-

nak. Bitartekari baten bidez iristen zaizkigu beti irudiak eta horixe da, hain zuzen ere, irudiak itoarazi eta haiek ikusten uzten ez diguna. Itxurakeriaren irudikerian bizi gara. Sutearen ostean ez da deus geratzen, baina sutea gertatu aurreko segundo horretan, keinu ikonoklastaren azken segundo horretan du irudiak, eta ondorioz hitzak eta keinuak ere bai, bere indar gorena, bere potentzia maximoa. Eraikin ofizialtan paratutako artazien debekuarekin gertatu den modura. Desagertu aurreko instant horretan. ■

